

Nafarkaria


Egunkaria

Ostirala, 1996ko abuztuaren 2a

Bidasoako paisajistak, gaur

■ Baztan eta Bidasoa aldeko hamahiru margolariren lana biltzen duen erakusketa zabalik da atzodanik Berako Kultur Etxean. Ez da hau, baina, Baztan eta Bidasoa aldeko paisajistak biltzen dituen lehen erakusketa. Hiru belaunaldi elkartu zituen Elizondon, Iruñean eta Gasteizen duela hamar urte egindako batek. «Denbora hori igarota, Baztan eta Bidasoa aldeko paisajisten panorama berrikusteko garaia iritsi da».

Ana Larruy erakusketako komisarioaren hitzetan. ■



Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Gogotik negar egiten zuen. Zein ederki, gainera. Etengabe, kontsolamendurik erdietsi ezin duenaren zotin eta guzti. Oporretarako lagunik ez zuela eta negarra etortzen zitzaion. Ezin inon laketu eta negar Parisen, negar Britainian... Gogoa ematen zuen esateko, «aizu, bixotza, zatoz nirekin; nire lagunak ere, nire moduan, oso arruntak dira, baina ongi pasako dugu Gaztelan», esate baterako.

Donibane-Lohizunen bota zituen azkenengo malkoak, arratseko izpi berdea harrapatu ondoren, mutil beltzaran baten begi argietan begi propialen isla bereizi ahal izan zuenean. Gero, kolore guztiak aienatu, eta letra gutxi batzu agertu ziren pantailan.

Horrelakoetan, kalera egin eta beldurra ere ematen du isiltasuna urratzeak, inork ez daki zein den hitzik egokiena une horietan. Alabaina, beti izaten da

Izarren azpian

isilik egoten ez dakien horietako bat «ze ongi inprobisatzen duten» batekin aterako dena, edota naturalismo hitza azalduko da hurrengo eguneko egunkarian zine kritikariaren iritzi artikuluan. Ikusle gehienak, haatik, konforme gara txintik atera gabe. Hori bai, tatuaiaren baten eran grabatuko zaigu zuzendariaren izena (Rohmer, Eric), eta barrenean errotu zaigun zerbaitek esaten digu horrelako filmak ez direla behin eta berriz etxeko bideoan ikusteko, egiazko keinu, ele eta soinu guztiekin gertatzen den bezala: Victoria Abrilaren amodio hasperenak, Iciar Bollainen marranta eta zango okerrak, Mikel Garmendiaren kolera, Mastroianniren oinaze zaharra...

«Ze ondo lan egiten duen Gari Kope-rrek», esaten zidan amak, ez sinestea hain zaila zen garai hartan. Eskalea katedrale gotikoan sartzen zenekoa gertatzen zitzaion gure gurasoen ga-

raikoei. «Ni ez naiz inor zu nire etxean sartzeko», irakur zitekeen *casas baratas* haietako egongelan telebisio aurrean zeudenen gogoetan.

Zerua kolore gordinagoz tintatu zen, ordea, eta egungo hodeien azpian ez da hain zaila «to be or not to be» esatea, benetako erronka da behar bezala adieraztea «gustura janen nuke urdaiazpiko puska bat». Prosa deituko diote batzuek. Bai, zergatik ez?. Nire lagun batek ordu erdi bat eman zuten Enma Suarezekin kostaldeko ostatu batean. Azkenean kamareroak gaztigatu behar izan zion: «hi, halakoarekin egon haiz tragoa egiten».

Nik ere hiru zita egin ditut gaur. Hirurak Rohmerrekin. Parisen behar zuen, baina Iruñera inguratu dela esan du. Munstro izeneko zine-areto horietara. Beti etortzen da, eta biona pagatzea gustatzen zait. X

✂ GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Elizondo: Phantasy Quartet taldeak kontzertua eskainiko du hilaren 5ean, 20:30etan, Donejakue elizan. Halaber, hilaren 7an Cuarteto Clasiko taldea ariko da toki eta ordu berean.

Irurtzun: Sarraski, Síndrome del Norte eta Doctor Kronismo taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, hilak bi, herriko plazan eta 23:00etan.

ANTZERKIA

Nabaskoze: Azkona taldeak *Kiki, Koko, Moko eta Flax* ikuskaria taularatuko du, Nafarroako Gobernuaren Mozorro Berri kanpainaren barruan.

Zare: Kollins Clown taldeak *Ongi etorriak Mendebalderal* izeneko obra antzeztuko du.

Artieda: Trokolo antzerki taldearen eskutik *El gran Oscar* antzez-lana ikusgai izanen da gaur, hilak bi, herriko plazan eta 21:00etan.

ZINEMA

Irurtzun: *La isla de las cabezas cortadas* pelikula ikusi ahal izanen da hilaren zazpian, foru plazan, 22:00etan, eta musutruk.

Burlata: *El primer caballero* filmea pantailaratuko dute gaur, hilak bi, 22:30etan, herriko Floirac plazan.

ERAKUSKETAK

Zangoza: *Harriak baino gehiago* izeneko instalazio plastikoa ikusgai izanen da herriko Kale Nagusian hilaren 27ra arte. Silvia Jauregi, Beatriz Txurruka eta Mikel Saiz artistak dira obraren egileak.

Iruñea: Gotorlekuan Iruñeko Hiria I. Eskultura Biurtekora aurkeztutako obrak izanen dira ikusgai hilaren 25era arte.

IKASTAROAK

Zangoza: *Lohiaren inguruan eskultura eta zeramika* izeneko tailerra egingen dute Kultur Etxean hilaren bostetik zazpira, eta Udal Kultur Batzordeak antolatuta. Tailerra egunero 20:00etan hasiko da.

LEHIAKETAK

Agoitz: Nazioarteko margolaritza lehiaketa antolatu du Bilaketa kultur taldeak. Egile bakoitzak obra bakarra aurkeztu ahal izanen du. Teknika eta gaia libreak dira. Irabazleak 600.000 pezeta (24.000 libera inguru) eskuratuko ditu. Lanak irailaren 23a baino lehen aurkeztu behar dira Agoizko Francisco Indurain karrikaren 12. atarian.

BESTELAKOAK

Zangoza: Artisau azoka izanen da gaur, hilak bi, Karmengo klaustraren ondoan, 20:00etatik 22:00etara. Zangozaldeko artisauek parte hartuko dute horretan.

Nafarkronika

Alberto Barandiaran

Ezer ez da berdín

Atzo hasi ziren Nafarroako Jaialdiek zeresanik emango dute, ez da dudarik. Ez hainbeste ekarri dituzten musikariengatik baina hemendik aurrera dena desberdina izango delako. Transizioak izendatu di tuzte, eta hala behar dute, goitik-behera pentsatu behar delako berriro kultur eskaintza eskasa betetzeko sortu zen egitaraua.

Hasierako urte haietan ibilitakoei galdetuz gero, denek azpimarratzen dute ez dutela zerikusirik ordukoek eta gaurkoek. 80ko urteen hasieran piztu zen giroak, ilusioak eta parte hartzeko gogoak irudikatu zuten bazegoela aukera udan hain ohikoak diren jaialdi handi horietako bat egiteko, Iruñeak eta Nafarroak ere izan zezaketela beren jaialdia. Hasieratik, hala ere, huts egin zen pertsonalitatea emateko orduan. Denetarik —musika, antzerkia, dantza, hitzaldiak— sartu zen zaku berean, eta talde handiak ekarri baziren ere, ikuskizunak Nafarroan inoiz ikusi gabeak dastatu ahal izan baziren ere, ezin uka aniztasunak ez ziola onik egin egitasmoari.

Erriberriko egoitza kentzea izan zen bigarren hutsa askorentzat. Jaialdiek galdu zuten horrela beren erreferentzia puntua, galdu inguruak ematen ziren pertsonalitatea eta galdu hiri monumentalak paratzen zuen giro itxurosoa. Herriek irabazi zuten, Elizondok, Altsasuk, Zangozak edo Tuterak eduki ahal izan zituzten ekitaldiak betetako abuztuko egun batzuk, baina jaialdiek galdu zuten.

Orain ez da dirurik, ez da beharrik, antza, eta ez da horretarako eskaerarik. Orain bada tradizioari segitu beharra. Baina nola? espezializatuak? anitzak? soilik egoitza batean egin beharrekoak? Kultur zuzendaritzakoek diotenez, aurtengo ekitaldiak bideak erraztuko ditu erabakia hartzerakoan. Litekeena da desagertzea, egitarau kultural gisa uzteko, eta litekeena da hondarrean musika izatea jaialdien ardatza. Nolanahi ere, ezer ez da berdín, eta ez da izango. Hasierako urte haiek, ordea, askoren gogoan geldituko dira, orduan sartu baitzen gure lurraldea udako ibilbide kultural nagusien barruan.



asteko pertsonaiak



Jerry Simons
Osasunako jokalaria

■ Holandako futbolari beltzaranak txalorik beroenak jaso zituen joan den asteartean, 1996-97ko denboraldiko Osasunaren aurkezpenean. Antza denez, jarraitzaile gorritxoek gustukoa dute aurki, abuztuaren 29an, 27 urte beteko dituen aurrelariaren irribarre etengabea. Lau mila zale hurbildu ziren Sadarrera, aurkezpenaz zuzenean gozatzera. Aurreko bi denboraldiotan ez bezala, ez zen ikuskari handirik izan, eta inork ez zuen *Vamos a subir* ospetsua kantatu. Rafael Benitez entrenatzaile berriak gauza bakarra iragarri zuen: «Lana». Ea handinahia alde batera utzita, gorritxoek Lehen Mailara daraman bidea topatzen duten. Gauzak hirugarren aldian lortzen direla dio esaera zaharrak...



Iñigo Monreal
Atleta

■ Korrikalari iruindarrak Atlantako Joko Olinpikoetan 400 metro hesidunetako lasterketan parte hartu zuen joan den astelehenean. Zazpigarren kanporaketan korrika egin zuen, eta zazpigarren postuan heldu zen, 52.23 segundotan. Ez zen, inondik inora, bere markarik hobereana izan, eta, jakina, ez zen finalerdietara pasatu. «Junior nintzenean marka hobek egiten nituen». Korrika egin eta berehala, esaldi horrekin laburbildu zuen bere porrota. Horren zergaiti nagusia ere azaldu zuen: «Batez ere haizeak egin dit kalte». Dena dela, 21 urteko korrikalari iruindarra ez zegoen erabat suntsituta; izan ere, «garrantzitsua hor egotea zen». Sidneyko Joko Olinpikoetan lan hobea egitea espero du atleta gazteak.

ahaztu gabe!



Indurain Atlantán

Atlanta: Bihar, hilak 3, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Miguel Indurainek parte hartuko du Atlantako Joko Olinpikoetako erlojupeko lasterketan. Nafarroan badira, toki guztietan bezala, Indurainzale amorratuak, Indurainzaleak, Indurain gehiegi maite ez dutenak, eta Indurain gorrotatzen dutenak. Atarrabakoa gorrotatzen dutenek ere onartu beharko dute tristura pixka bat sentitu zutela pantaila txikian, Tourreko etaparik handienean barna, mutiltzarra Urruñeko mendatean ezinean, lur jota ikusi zutenean. Horiek eta, zer esanik ez, Indurain gogoko dutenek txirindulari nafarraren eskutik alaitasuna sentitzeko parada izan lezakete bihar bazkaltzeko orduan telebista piztean. Prest da *Spada* bizikleta iraultzailea, eta prest Indurain bera ere. Ohiturari jarraiki, adierazpen mamitsuak egin ditu Atlantán, urrezko domina eman diezaiokeen probaren atarian: «Hor egonen gara».

adi!

Euskalerría Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saloa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaitetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Bera

Gaur hasiko dira Sanestebanak

Herriko Etxetik 12etan botako den altxafueroarekin abiatuko dira

Beratarrek gaur hasien dituzte Sanestebanak. Eguerdiko hamabietan Herriko Etxeko balkoitik altxafueroa botako du Manuel Iriarte alkateak, eta hortik aurrera herritarrek festan murgilduko dira bost egunez. Parranda eta jaia gogoko dituenak izanen du zer egin eta zer dantzatu egunotan.

Erredakzioa / Iruñea

EUSKAL HERRIKO beste hainbat bazterretan bezala Beran ere festa giroa izanen da gaur hasi eta asteartera bitartean, herriko jaiak ospatuko baitituzte egunotan. Eguerdiko hamabietan abiatuko dira festak Manuel Iriarte alkateak Herriko Etxetik botatzen duen altxafueroarekin elizako ezkilen danbatekoa lagun izanen dutelarik.

Jaien hasiera iragarriko duen altxafueroa ez da hutsik etorriko, ongi baino hobekiago ospatzeko herriko txikiak goxokiak eta helduak txanpaina izanen baitituzte nahi adina. Ondoren, erraldoiak eta buruhandiak karrikaz karrika giroa berotzen ibiliko dira, Zizkuitz txarangak eta gaiteroek lagunduta.

Bazkari legea egin ondoren izanen da oraindik ere zer eginik. Arratsaldeko zazpi eta erdietan txistulari taldeak ohizko bilbidea eginen du Berako karriketan zehar. Ordubeteko geroago dantza gustoko dutenen txanda izanen da, Gure Txokoa dantza taldearen jaialdia izanen baita Eztegar pilotalekuan. Gauerditik aitzina dantza ikusi ez, baina praktikatzekeo parada edukiko dute beratarrek eta bertara hurbiltzen



Beratarrek gaur hasiko dira Sanestebanak ospatzen.

JON ABRIL

diren kanpotarrek Alzate Plazan Cristina eta Amaia trikitixa-joleekin.

Bestetako lehen egunean egiteko handirik ez izan arren bihar, San Esteban eguna izanik, egitaraua ekitaldiz gainezka dator. Egun handia goizeko bederatzietan herriko txistulariek, akordeoilariek eta musika bandak joko duten argisoinuarekin hasiko da. Dantzak eta herri kirolak ikusteko eta jotak eta bertsolariak entzuteko parada dago, besteak beste.

Aurten egitarauak badakar be-

rrikuntzarik ere. Egunean zehar nekatzen ez denarentzat herriko peñek antolatuta, egunero, goizaldeko hiruretan jokoak eginen dira. Gaur, zerbitzarien lasterketa eta begi itxiak txokolate jatea izanen da Izeiak peñak antolatuta. Bihar, Moxoloak peñak zaku lasterketan eta ahoarekin irinetan gauzak bilatzen jarriko ditu herritarrek. Etzi, berriz, eski lasterketa eta patataren dantza izanen da Tirtirikuak proposatuta.

Gelditzen diren beste bi egunetan ere izanen da zertan jostatu,

besteak beste, arrekonkon lasterketa eta irrintzi lehiaketa prestatuak baitituzte peñek.

Haurrek ere izanen dute nola gozatu astelehena euren eguna izanik hainbat ekitaldi iragarriak baitaude. Aurreko urtean ez bezala, ohiko buruhandiez eta erraldoiez landa, badute gehiagorik etxeko gazteenek. Arratsaldeko bostetan goitibeheren proba izanen da Mitxin bordatik Matzad futbol zelairaino. Ondoren, ordubeteko geroago musika jaialdia daukate Hortzmuga eta Polvoron taldearekin. X

Leitza

Umeen Eguna ospatuko da igandean, festen aurretik

Erdi Aroko merkatua ere hurbilduko da Leitzara

Erredakzioa / Iruñea

JOAN den igandean festen egitaraua banatu zen, eta oraingoan umeen txanda da. Urtero legez, aurten ere abuztuaren lehenengo asteburuko igandean eginen da Leitzako Santiburtzioetako jaietarako deus gutxi falta dela iragartzen duen Umeen Eguna. Leitzarrek eguna dianarekin hasiko dute, goizeko zortzietan. Herriko kaleetatik barna ibiliko dira biltzen zaizkien laguntzarekin. Ondoren, hamarrak aldera, txirindulari gazteen proba egingo da. Txikiak eguna denez, beraientzat bereziki prestatutako jokoak

(zozkor biltzea, zaku lasterketa...) izanen dira Leitzako frontoian eguerdiko hamabi eta erdietan.

Arratsaldean, berriz ere txirindularien eginalak bistatzeko aukera izango da lau eta erdietatik aitzina. Zortzi eta erdietan eta gaueko hamabietan Izotz taldearekin dantzaldia izanen da herriko plazan.

Horretaz landa, izanen da zereginek asteburuan Leitza aldean. Bihar eta etzi Erdi Aroko merkatua izanen baita. Garaiko musika eta trobadoreak entzuteko parada ezezik, sasoi horretan jaten zena dastatzeko parada ere egonen da. X

Burlata

Julian Retegi Txapelketa antolatu du Patronatuak

Bederatzigarren ekitaldia izanen da aurtengoa

Erredakzioa / Iruñea

BURLATAKO UDALEKO Kirol Patronatuak Julian Retegi Pilota Txapelketaren bederatzigarren ekitaldia antolatu du. Lehiaketa bihar hasiko da eta hilaren 15ean amaituko. Pilotari afizionatuek hartuko dute parte aipatu txapelketan, bai eskuz banakakoan, bai eskuz binakakoan. Partidu guztiak Askatasuna pilotalekuan izanen dira.

Banakakoan lau pilotari ariko dira. Lehen partidua Borda eta Balerdi II.ak jokatu dute abuztuaren 7an. Bigarrena, hilaren 10ean, Barriola eta Semberozek jokatu dute. Finala,

berri, hilaren 15ean arratsaldeko zazpitan izanen da.

Bikoteei dagokienez, zortzik hartuko dute parte lehiaketan, Nafarroa, Gipuzkoa, Errioxa eta Gaztelakoak. Lehenengo partidua bihar jokatu dute eta kanporaketak hilaren 10ean amaituko dira. Finalerdiak 12an izanen dira eta finala, berriz, hilaren 15ean jokatu dute sailkatutako bi bikoteek.

Julian Retegi Txapelketarekin batera, jubentzentzat eta kadeententzat beste txapelketa antolatu du Burlatiko Axular pilota taldeak. Abuztuaren 5etik 14ra eginen dute eta bikoteek hartuko dute parte. X

Elizondo

Bertako Produktuen Feria eginen dute hilaren 10ean

■ Garalur eta Bertizko Partzuergoak antolatuta

Erredakzioa / Iruñea

BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOAK eta Garalur Elkarteak antolatu Bertako Produktuen Feria Elizondon eginen dute datorren larunbatean, hilaren 10, Nafarroako Gobernuaren eta Baztango Udalaren laguntzaz. Azokak goizeko hamarretan irekiko ditu atea bisitari guztiei ongi etorria emateko eta arratsaldeko ordu biak arte izanen ditu zabalik. Goizean, beraz, bertako produktuak ezagutu, dastatu eta erosteko aukera izanen dute guztiek Elizondoko ferian. Izanen da besterik ere, gainera, egun osorako hainbat ekitaldi prestatu baitituzte antolatzaileek.

Goizeko hamabietan, hain zuzen, txakurren erakusketa izanen da eta ordubete geroago, berriz, kontzertua. Baztan Musika eskolako akordeoi joleek eskainiko dute. Arratsaldean ere izanen da zerikusi Elizondoko karriketan barrena. Seietan, adibidez, eskulangintza feria eginen dute. Ondoren, arratsaldeko zortzi eta erdiak aldera, herri kirolak izanen dira herriko plazan.

Donezteben orain aste batzuk egindako Bertako Produktuen I. Ferian bezala, bertako ekoizleak izanen dira nagusi Elizondoko azokan, baina inguruko beste herrietako saltzaileak ere han izanen dira, eskualde osoan aurki daitezkeen produktu garrantzitsuenen erakusle.

Kontserben alorrean, Berako Errotazar, Elizondoko Esarte eta Almandozko Beola izanen dira hilaren 10eko azokan. Gozotegiak ere izanen dute zer erakutsi; hala nola Elizondoko Malkorrak bere txokolate famatua. Elizondoko bertako Retegi gozotegiak ere hartuko du parte ferian berea erakutsiz.

Gasna egileen artean eskaintza zabaldua ezagutzeko aukera izanen dute elizondarrek eta bisitariak: Arantzako Otsarra, Elbeteko Autxitxia, Elizondoko Etxetxia, Arizkongo Baztan, Amaiurko Mendialde, Etxalarko Basate, Urdazubiko Etxelekua eta Donamariako Donamaria. Edarigileen artean, bestalde, Arizkongo Licores Baztan eta Lekarozko Larralde Sagardoa izanen dira Elizondon. Lesakako Koikili okindegiko produktuak ere dastatu eta erosi ahal izanen dira, besteak beste. Elizondoko Bertako Produktuen Feriara hurbilduko diren elizondarrek eta bisitariak, beraz, aurkituko dute bertan zer ikusi eta zer erosi. X

Xanti Begiristain

Iruñeko galtzadarriak

■ Azken bolada honetan Iruñeko jende asko, batez ere Alde Zaharrekoa, oso aztoratuta dabil galtzadarriak direla, eta ez direla. Batez ere egun hauetan, zenbait kale edo lekutan lanean hasi direnean, ahotsak gehiago altxatu dira.

Izan ere, Iruñeko erdiguneko kaleen zoruek konponbideren bat behar dute. Edozein hiritarrek ikusi eta pairatu ahal izan ditu bertan dauden zuloak, behearguneak, itxi gabeko tarreak e.a.

Nik, Nafarroako hiriburuko hiritarra bezala ere, erabili nahi dut iritzia adierazteko demokraziak ematen didan eskubidea.

Badakit hiriburuko alkate jaun eta beste zinegotzi asko, galtzadarriak kentzearen aldekoak direla funtzionaltasunaren izenean. Beste zinegotzi batzuk eta gizarte taldeak, hala nola kulturako pertsona batzuk eta beste zenbait kolektibo, ordea, mantentzearen alde daude. Lehengoek, hau

dut nik ezin dudala ahaztu nire egoera fisikoa, hortaz, emango ditudan pentsamoldeak izango dira gurril-aulki erabilgaitzak eta hiritar arrunta naizen aldetik. Lehenik eta behin, esan behar dut ulertzen ditudala batzuen eta besteen zioak eta argudioak: konprenitzen ditut kentzearen alde daudenen arazo teknikoak, eta baita mantentzearen alde direnen lege hauste horren arrazoiak ere. Gainera, legea ona bada eta ongi egin baldin badago, larriagoa iruditzen zait oraindik legea ez betetzea. Beraz, ni gai tekniko hauetan batera aditua izan gabe ere, esango nuke lehendabizi legea bete beharko luketela, eta hortik aurrera, neuri eta ni bezala dabilzan guztiei interesatzen zaiguna kaleak ahalik eta erosoan izatea da. Horrek esan nahi du guri komeni zaizkigula kaleak leunak, koskarik eta espaloirik gabek, ez-irristakorrak e.a. Hori nola egin? Nola



da, galtzadarriak kendu nahi dituztenek, esaten dute, praktikoki ezinezkoa dela harriak egoera on eta egokian luzaro iraunaraztea. Horretarako argudiatzen dute galtzarriak oso sakonak direla (25-30 cm), harea gainean daudela apoiatuak atera ahal izateko hondatzen direnean, eta horregatik guztiarengatik oso zaila dela hasiera batean jarritako maila berean mantentzea ibilgailuen pisuaren presiopean. Horretaz gainera, hiriaren zoru azpian eta ondoko horma eta sotoetan arazo latzak sortarazten omen ditu sartzen den urak.

Bigarrenek, hots, galtzadarriak mantendu nahi dituztenek, besteak beste, honako argudio hauek egiten dituzte beren iritzia defenditzeko. Alegia, galtzadarri horiek aspalditik bat eginak daudela Iruñeko Alde Zaharreko monumentu multzo historikoarekin, legeak hala aitortzen dituela, eta beraz, horrela, edozein modutan eta baimen berezirik gabe ezin direla kendu. Hori egitea legeren baten aurka joatea omen litzateke.

Eta jakina, hau guztia azaldu ondoren suposatzen da, orain nik busti egin behar dudala eta adierazi beharko dudala neure iritzia. Ongi ba, oirintxe bertan saiatuko naiz. Hasteko esan behar

uztatu dena, legea eta funtzionaltasuna modu egokian? Nik ez dakit oso ongi baina konbentziturata nago guztien borondaterik hoberekin lor litekeela maila handi batean. Hona hemen nire eskarmentutik ateratako ideia batzuk erabilgarriak balirateke ere: orain arte, gurrildun aulkietan mugitzen garenok, behin ere ez dugu aukerarik izan Alde Zaharreko espaloietan ibiltzeko, besteak beste, Udalak ez dituelako egin behar diren aldats guztiak. Horregatik, beti ibili behar izan dugu galtzadan, baina bi eragozpen erantsirekin: hots, ibilgailuen arriskutik etengabe ihes eginez, lasaitasunik barik, eta galtzadarri-zoruari atsedunik gabe erreparatuz, era berean patxadarik gabe, gurrilak zulo-guneetan ez sartzeko eta estropozurik ez izateko. Laburbilduz: mugikortasun murrizteko pertsonok ere ordaintzen ditugu zergak, beraz, exijitzen dugu Alde Zaharreko kaleetan barrera lasaitasunez ibili ahal izatea beste edozein pertsona bezala, bai espaloietan, bai galtzadetan ere. Nola? Ba, buru pentsatzaileek bila eta aurki dezatela konponbidea! Esaterako, entzierroko zezeneztat pikatzen dira harriak eta botatzen da galipota; elbarriok gutxiago ote gara? ■

Klasiko bitxi, arront klasiko

Joxemiel Bidador

Izabako Migel Uhalde kontatzaile legoa zenaz

■ Ezer guti da Migel Uhalde karmeldarraz iritsi zaiguna, berak laga zizkigun lan idatziak ezpadira. Guziarekin, bera eta bere liburuak gaitzat harturik Eduardo Urrutiak ondu bi saio llabur baditugu, 1916. eta 1917. urteetako *Euskalerraren Alde* eta *Boletín de la Comisión de Monumentos de Navarra* hurrenez hurreneko aldizkarietan ageri zirenak. Bestaldetik ere izabarraren bestelako profil aski argigarria bazigun eskaini Perez-Goienak nafar bibliografiaren laugarren alekian. Erronkari ibaxako sendi txiroan sorturik, guraso laborariek zinak eta minak pairatuko zituzten seme argiak ikas zezan, alabaina mendeak unaturik nonbait, karmeldarren legeetara bildu zen Uhaldearen premia, eta apez karrerari zaputz egirik, anai soil bidali zuten Sevilla aldera non 1780.ean zendu baitzen. Matematika-zale amorratua, kontatzaile legoa edo *el contador lego* bezala ezaguna egin zen bertan *Notas al destierro merecido de opiniones equivocadas* izenburuko argitara eman zuenean. Honetan egutegi juliarrek bide dituen akats larriak hitzpidet zituen, eta horren ordez izarren higiduretan oinarriturik berak asmatutako egutegi berria proposatzen zuen: *«Por haberse establecido el cómputo juliano para la intercalación de bissestos sin atención a la progresiva enlazada cuenta con que caminan los luminaires del cielo efectuando el armonioso concierto del verdadero año luni-solar, se ha seguido notable confusión en la universal república literaria, porque siendo dicho cómputo cuenta injustificada en su fundamental raíz, por consiguiente lo son las demás ramas que le coadyudan, el aureo número, el cielo solar de 28 años, etc.»* Berariak aldakuntza gauza zedin liburuarekin batera orotegi mamitsu eta sakon bat helarazio zion erregeari, hark bere mendeko lurretan orotan zabal eta berme zezala. Halarik ere, Uhaldek aldarrikatu aldakuntzak bertan behera geratu behar izan zuen Kontseiluak 1765.eko abenduaren 27an aditzaera eman zuen Erret Aginduaren ostean. Hauxe gainera etizen Izabako karmeldarrek idoro oztopo bakarra, eta Sevillako Unibertsitatean astronomiazko katedratikoa zegoen Frai Pedro San Martín Uribe trinitarioaren oldar isekatzaila eta Salamancako Unibertsitatearen irakasleak ziren Diego Torres eta Isidoro Ortiz bikoteak egirik eraso deuseztagarriekin lehiatzeko beharra izan zuen. Nolanahi ere defendatzen zuen teoria bere arrazoi guzietan, izenburu luzea daraman honetan finkatu zuen: *Asunto serio, grave e importante que se propone a resulta de lo que se ha trabajado hasta ahora sobre la más justa computación del tiempo y asunto que implora la protección de los príncipes soberanos por ser de tan gloriosa naturaleza sin oponerse a sus intereses temporales*. Iruñean, Joseph Longasek Zugarrondo aldeko Karmen karrikan zuen moldetegian, 1775. urtean. Beste bietan gutxienez eman zuen argitara idazki hau, bata segituan ikusiko dugun 1776.eko *Arithmetica demonstrada* liburuaren bukaeran, eta beste behin 1778.ean ohiko etxean: *«Cítese los defectos que se han dejado ver y experimentar en el compendio de los 1.778 años de la presente era cristiana, y se cree el autor que la cuenta del verdadero año luni-solar se puede deducir de los mismos cálculos que expresa la sagrada escritura establecida por base fundamental la décima cuarta luna en la que salió de Egipto el pueblo hebreo.»*

Honezkerok aipatu aritmetika liburuaz aritzeko unea heldu da. Hauxe bere garairako behar beharrezkoa zen idazkia dugu, bada eskoletan irakasten ziren matematikak jasotzen zituen lehen-dabiziko esku liburu baitzen. Bertan eragiketa matematikorik arruntenean islada dute, baita herri ezberdinetan usean ziren pisu eta neurrietako taula konparatiboak, merkataritzan zihardutenendako tresna ezin erabilgarriagoa egiten zelarik. Erronkari ibaxari eskaini eta *Arithmetica demonstrada con diversas prácticas cuentas de las cuatro reglas para que la juventud pueda instruirse con brevedad y recordar los demás inteligentes las especies olvidadas de las que aprendieron antes* izenburu zaborra ipini zion, aurrekoetan bezala Longasen etxean inprimarazi zuela 1776.ean. Historiagile bezala ere zer edo zer ondu zuen, hala nola, *Apología reformada del Padre Moret vindicándole de la impugnación de algunos historiadores y de las del Padre Risco* edota *Compendio apologetico de la historia de Navarra*. ■



Iruñeko Hiria xake torneoko zazpigarren jardunaldiko partida, 1996ko urtarrilaren 3an jokatu. **Mario Gomez** (Euskal Herria), 2.425 ELOkoa — **Francisco Hernandez** (Costa Rica), 2.230 ELOkoa.

1) d4, d5; 2) c4, c6; 3) Zc3, Zf6; 4) Zf3, e6; 5) e3, bZ-d7; 6) Dc2, a6; 7) Ad2, Ad6, 8) e4, e5; 9) 0-0-0, e4; 10) Ze4, Ze4; 11) De4, Zf6; 12) Dh4, e4.

Peoi hau oso ahula zen. Aurreratzeak ez dio indar gehiagorik eman.

13) Ze5, Af5; 14) Ae2, 0-0; 15) g4.

Ikus koadroa. Beltzak peoia galtzear daude.

Baina posizioak okerragora ere jo dezake.

15)..., Ae5; 16) e5, Zg4; 17) Dg3.


Zurien jokaldi honekin, zaldi beltza oso gaizki kokatuta geratu da. Gainera, eraso aukera bada-gu.

17)..., Dc8; 18) hG-g1, e3; 19) e3, h5.

Beltzek ez zuten jokaldi onik.

20) h3, De6; 21) g4, g4; 22) Ac3, Dg6; 23) Gd6, f6; Ab1; 25) f7 xa.

Dena erabakita zegoen, eta zuriek lehenengo aukera aprobetxatu dute. Alfila erortzen denez, beltzek etsi dute.



Mundu zabaleko musika Nafarroan

Nafarroako Jaialdien «trantsiziozko» hamaseigarren ekitaldia abian da, musika ekitaldietara mugatua

Nafarroako Jaialdiak hamaseigarren ekitaldira ailegatu dira. Aurten musika izanen da protagonista nagusi eta bakarra, mundu zabaleko musika etniko, blues eta new age igoiko baitira Nafarroako taulen gainera. Musikaren jaialdiak ezezik, «trantsiziozkoak» ere badira aurtengoak. Principe de Viana erakundeak jaialdien etorkizuna zehazteko gogoeta egiteari ekin dio.

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO JAIALDIEN hamaseigarren ekitaldia abian da. Munduko hotsak lelopean musika dute aurtengoek protagonista bakarra. Ez nolana hiko, ordea, etnikoa, blues eta new age izanen baitira nagusi hilabete osoan Nafarroako hainbat herritan; Nafarroa izanen da mundu zabaleko musikaren topagune.

Lokua Kanza eta Rita Marley asteburu honetan izanen dira Altsasun. Hurrengoan, Tuterara iritsiko dira jaialdiak Raimundo Amador, Geoffrey Oryema eta Manu Dibangoren eskutik. Ondoren, Lizarran izanen dira Misia, Omara Portuondo eta Angélique Kidjo.

Bukatzeke, Zangoza izanen da aurtengo Nafarroako Jaialdien azken egoitza. Bertan izanen dira Luis Paniagua, Dulce Pontes eta Guen Dai.

Iruñean, gainera, tailerrak izanen dira —txalaparta eta perkusioa, besteak beste—, baita hitzaldi eta topaketak ere artista eta kazetari espezializatuekin, Nafarroako Jaialdien urtetako ohiturak agintzen duen legez. Aurtengo Nafarroako Jaialdiek, hain zuzen, Iruñean bertan izan dute hasiera. Bertako Gaztelu plazan kontzertua eskaini zuen joan den asteazkenean Carlos Nuñezek hamaseigarren ekitaldia abian jarritz. Altsasu, Tuter, Lizarra eta Zangozaren txanda jarraian.

Nafarroako Jaialdiak etorkizunaren bila • Musika protagonista nagusi eta bakarra dutelako ezezik, bada aurtengo Nafarroako Jaialdiak bereziak direla errateko beste arrazoirik ere. Tomas Yerro Kultur zuzendari nagusiak berak ere «trantsiziozko» deitu du aurtengo ekitaldia.

Nafarroako Jaialdiak antolatzaren dituen Principe de Viana erakundeak, izan ere, gogoeta sakona egiten ari da, eta 1981. urtean sortutako jaialdion etorkizuna edizio honen ondotik zehaztuko da.

Nafarroako Jaialdien aurkezpenarean berean, etorkizun jarraituko duten bidearen hainbat zehaztapen aurreratu zituzten Tomas Yerro eta Jose Ortega Principe de Vianako erakunde buruek, nahiz eta aldaketaren



Misia (ezkerrean), Lokua Kanza (goian), Raimundo Amador (goian eskuinaldean), Dulce Pontes (eskuinean) eta Rita Marley ariko dira Nafarroako Jaialdietan datozen asteetan.



nondik norakoak guztiz finkatuta ez egon: espezializatuagoak, hiri batean zentratuak eta orain artekoak baino independenteagoak diru publikotik; gainera, garaiko idealekin konprometuta, esaterako, elkartasuna, kultur aniztasuna eta nahasketa etnikoekin.

Tomas Yerrok berak onartu duenez, hasieratik indefinizioak jota egon dira Nafarroako Jaialdiak. 1983. urtean bultzatu zen deszentralizazioak, gainera, gaitza areagotu besterik ez zuen egin. Arrakasta handiko zenbait ekimen —Julian Gaiarre eta Pablo Sarasate kantu eta biolin lehjaketak edo bideo erakusketak— bereiztu egin dira, baina Tomas Yerro kultur zuzendariak onartu duenez, espezializazioarentzat oztopo izan da.

Urte hauetako guztietako gastuak ere ez dira nolana hikoak izan —mila milioi pezeta inguru (40 milioi libera)— eta Kultur zuzendari nagusiaren hitzetan, «inbertsioa baino, horixe izan dira, gastu. Ez dugu azpiegiturarik eta hasieran zeuden gabeziak berberak dira».

Musika, dantza, antzerkia eta ikastaroak • 1981. urteko udan sortu ziren Nafarroako Jaialdiak.

Azpiegitura egokirik ez zegoen, ezta antolaketa bere gain hartuko zuen lagun talde finkorik ere. Ekimen berriak, baina, iruindarren interesa piztu zuen eta, azkenik, eszenatoki bitxi eta berezi bihurtu zen Erriberriko gazteluaren atzealdea.

Valentin Redin izan zen hasierako urte hartan Nafarroako Jaialdiek izan zuten lehendabiziko zuzendaria. Bere eskutik, musika, dantza eta antzerki ikuskitzuzen anitz eta ezberdinak igaro ziren Erriberriko gaztelutik abuztuan zehar.

Hauekin guztiekin batera, gainera, ikastaro, hitzaldi eta tailerrek osatu zuten Principe de Viana erakundeak abian jarritako ekimena.

Nafarroako Jaialdiek, hala ere, bizi izan dute garapen eta aldaketarik. Horien artean agian garrantzitsuena deszentralizazioa izan da.

Hasierako urteetan Erriberri izan zen jaialdien bihotza. Ondoren, beste herri batzuetara ere eraman zuten jaialdien antolatzailerek udako kultur eskaintza. Aurtengo «trantsiziozko» jaialdiek ere Iruñea ezezik badute beste hainbat eszenatoki ere: Altsasu, Tuter, Lizarra eta Zangoza, aiegia. X

NAFARROAKO JAIALDIETAKO EGUTEGIA

ABUZTUA

	DATA	
ALTSASU	2	Lokua Kanza
	3	Rita Manley
TUTERA	8	Raimundo Amador
	9	Geoffrey Oryema
	10	Manu Dibango
LIZARRA	15	Misia
	16	Omara Portuondo
	17	Angélique Kidjo
ZANGOZA	22	Luis Paniagua
	23	Dulce Pontes
	24	Guen Dai
IRUÑEA	5-8	Ikastaroa: txalaparta, Ortazarrek emana
	7	Hitzaldia: 'La txalaparta: pasado y futuro'
	14	Hitzaldia: 'Mujeres que dejan oír su voz'
	20	Ikastaroa: musika berriak
	21	Hitzaldia: 'Sonidos del mundo para una nueva era'

◆ Javier Manzanos ◆ Iruñeko Udaleko Kultura teknikaria

«Sanferminetan interes eta kalitatezko erakusketak eskaintzen segituko dugu»

Iruindarrak heldu den urteko Sanferminen zain dauden bitartean, Udala oso kontent dago egitarauan eskaintako Sanfermin Kulturalak izan duen harreragatik. Sarasate pasealekuan ezarritako eskultura batzuek kalteak izan bazituzten ere, jaietan paratu ziren 11 erakusketek izandako bisitari kopuruak erakusten dute ideia egokia dela, Javier Manzanos Iruñeko Udaleko Kultura teknikariaren ustez.


Irene Arrizurieta / Iruñea

ATZO irekitako Tutankamon faraoi egiptoarraren inguruko erakusketa muntatzen ari zela harrrapatu genuen Manzanos. Oso lanpetuta egon arren, Udalak arte garaikideari buruz dituen asmoez hitz egin digu.

■ **Aurten Sanferminetan, ohiko egitarauaz landa, kultura kaleratu nahi izan duzue jaiak kultural bihurtuz. Udalak eta zuk zeuk nolako balorazioa egiten duzue?**

Nire ardura erakusketen atala den heinean, balorazioa oso ona eta oso positiboa da. Sanferminetan 11 erakusketa paratzea arris-kugarria izan zitekeen, baina espero ez genuen harrera izan dute. Gotorlekuaren kasuan erakusketa batzuek beste batzuk lagundu dituzte. Nik uste dut Iruñeko jendeak egin zaien proposamena oso ongi hartu duela, erakusketa maila ona erakutsi dugulako eta ekainean baino bisitari gehiago izan ditugulako.

■ **Berri helburuak bete direla esan aiteke?**



Javier Manzanosek laugarren urtea du Iruñeko Udalean erakusketak antolatzen.

OSKAR MONTERO

Bai, erabat. Lortutako emaitzaz gogoeta egitean bide beretik jarraitu behar dugula ohartarazi digu, interesa eta kalitatea duten erakusketak Sanferminetako eskaintza izan daitezkeen beste atal batzuk betetzeko.

■ **Udalaren proposamen ausartena eta publikoarentzat zuzenena Sarasate pasealekuan jarritako eskultura garaikideen erakusketa izan zen arren, Jose Ramon Anda, Leopoldo Ferran eta Josetxo Santosen eskulturrek kalteak izan dituzte. Nola izan da artiston erreakzioa?**

Jose Ramon Andaren eskulturrak ez zuen kalterik izan; kokatua zegoen tokitik atera eta lurrera bota zuten. Gainera, brontzez egina dagoenez, berriz bere gu-

nean paratu dute. Leopoldo Ferranenak eta, batez ere, Josetxo Santosenak bai, kalteak izan zituzten. Leopoldo Ferranen eskultura aste honetan ezarri dugu berrirori soldadura puntu batzuk eman ondoren, eta Josetxo Santosena egileak berak noiz moldatuko zain gaude berriz ere paratzeko. Eurak oso kontent ez zeuden arren, gehien uzurtu zena neu izan nintzen. Dena den, artistok izan ziren eskulturrak moldatu eta zeuden tokian berriz paratzeko adoretu nindutenak, nik, hasiera batean, Gotorlekura eramatea pentsatu bainuen espazio babestuagoa delako. Autoreek erasoan aurrean ezin genuela etsi erran zidaten eta jarraitu behar genuela, proposamen moduan hiriari oso ongi onartu zuelako.

■ **Iruñeko Udalak proposatutakoa asko gustatu zaiela adierazten du horrek?**

Hogeita hemeretzi artista baten dituen erakusketa batek beti beldurra handia ematen dio antolatzen duenari, erakusketan eragina duten artisten banako-

tasun handiak eta balorazio pertsonalak daudelako. Beldur horiek gaimdituta, erakusketa ireki zen egunean artista gehienak etorri ziren, eta guztiak oso pozik daude. Erakusketek trabak zituzten arren —pieza, nahasketa gehiegi—, artista gazteak eta klasikoak uztartuz aberastasun handia genuen, eta artistak bereak horrela uste izan dute.

■ **Sanferminetan paratutako arte garaikidearen zati bat Udalak ARCOen erosi zuen. Aurrerantzean, zein aterabide eman behar zaio?**

Asmoa da arte garaikideari buruzko —90eko hamarkadako, zehatzago esanda— bilduma apal eta txikia egitea, Iruñeko Udalak 70eko edo 80ko hamarkadako lanak erosteko aukera galdu baitu. Orain ezin ditugu Barcelo, Tapias eta Gordilloren obrak erosi. Oraingoa —90eko hamarkadako— den bilduma aurkitu behar dugu, aurrekontuarekin bat datorrena; eskultura baterako bost milioi pezeta (200.000 libera) aurrekontua gutxienekoa da. Udalean Kultura Sailean ga-

s o s l a i a

Javier Manzanos Iruñean jaio zen duela 32 urte eta Madrilgo Unibertsitate Konplutensean egin zituen Artearen Historia ikasketak. Geroztik hain gustuko duen arte garaikidearen alorrean ibili da lanean. Hasieran, Madrilen hiru urtez egin zuen lan arte garaikideko galeria batean eta, ondoren, Iruñeko Udaleko kultura teknikari moduan erakusketak antolatzen hasi zen eta horretan dihardu egun ere.

Uda bada ere eta iruindar gehienek oporrak badituzte ere Javier Manzanosek ez du aspertzeko betarik lanez gaitzeka baitabil erakusketak eta kultur egitarauak antolatzen. Datorren astean elektrografia ardatz duen erakusketa zabalduko da Cuencako Nazioarteko Elektrografia museoaren fondoein.

Lan ugari duen arren Manzanosek oporrak hartuko ditu abuztuaren baina nahikoa laburrak.

Hori bai, atsedenditxo ez du egonean egoteko izanen, baizik eta euskara ikasteko aprobetxatuko du, bigarren urratseko ikastaroa egiteko asmoa baitu.

biltzanon ustetan —teknikoak eta zinegotzia—, ez da gure zeregina arte garaikidea egokitutako museoak sortzea. Badago Nafarroan arte museoa, Gobernuarena den Nafarroako Museoa, badu arte garaikidea biltzen duen zati bat eta baditu arte garaikide hori gehitzeko edo garatzeko proiektuak ere. Nire ustez, gure eginkizunak bestelakoa izan behar du. Udalak eginkizun zuzenagoa, bi-ziagoa izan behar du, ikuslearengandik gertuago egonik. Aurrekontu eta espazio fisikoaren arazoak direla medio, gure helburua ez da pieza horiek gordetzeko tokia aurkitzea, baizik eta horiek mugitzea, artista baten obrari buruzko erakusketa didaktikoa egitea. Baditugu, era berean, Espainiako beste hiri batzuekin gure lanak trukatzeko proiektuak gure lanak mugitzeko. x

ARTE GARAIKIDEA

«Asmoa 90eko hamarkadako arteari buruzko bilduma egitea da, eta ez horretara egokitutako museoak paratzea»

P A N E LUCRANDO

LIRIKAZ
HONATAGO
•ZZ•

GAUR:

**FORMA
FIN
BAT**

W. H. Auden

Forma fin bat ikusterakoan harrapa ezazu eta ahal baduzu besarkatu.

OEO!

GRAN!

Neskatila dela edo mutila bada ere, Ez zaitetz lotsaia izan, izan zaitetz susarta, alai! Bizitza laburra da, goza ezazu zure haragidaren ukiduraz. Laketa zaitzun momentuan.

!?

ein?

Ez dago larraz jotzerik hilobian

ZALDI EROA